

Familiendako gida

Internet zentzuz erabiltzeko eskuliburua



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua



Dèdalo
FUNDACIÓN

Edukia

GIDAREN ATARIAN.....	1
GIDAREN HELBURUAK	1
NOIZ HASI ARRETA HARTZEN?	2
FORMULA MAGIKORIK BA AL DUGU?	3
BALIOAK BULTZATZEA	4
ERRESPETUA	4
JARRERA ARDURATSUA	5
ZEIN DIRA ARRISKUAK?	6
GEHIEGIZKO ERABILERA	6
BEHAR EZ BEZALAKO EDUKIETARA SARTZEA	6
JABETZA INTELEKTUALAREN KONTRAKO ERASOAK.....	7
SEXU JAZARPENA EDO 'GROOMING' DELAKOA.....	7
INTIMITEAREN KONTRAKO ERASOAK. ADIBIDEZ, 'SEXTING'	7
DELITU EKONOMIKOAK ETA IRUZURRAK.....	8
ARRISKU TEKNIKOAK	8
CIBERBULLYING	9
ETA ORAIN... ZER EGINGO DUGU?	10
INTERNET KONEXIO BAT DUGUNERAKO GOMENDIO OROKORRAK.....	10
EDUKIEN GAINEKO GOMENDIOAK	14
INTERNET ZERBITZUETAKO ERREGISTROEN GAINEKO GOMENDIOAK.....	15
ERABILTZEN DITUGUN ZERBITZUEN GAINEKO GOMENDIOAK.....	17
TELEFONO INTERNET-DUNEN GAINEKO GOMENDIOAK (SMARTPHONES).....	21
BIDEOJOKOEN GAINEKO GOMENDIOAK.....	24
LEGEAREKIN ARAZORIK EZ IZATEKO GOMENDIOAK.....	25
ONDORIOAK.....	27
KONFIANTZA GIROA ETA BALIOAK BULTZATZEKO GIROA SORTZEA	27
ERANSKINA	28
GIDA HONETAKO IRUDIAK.....	28
ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA.....	28

GIDAREN ATARIAN

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntzako Parte-hartzearen, Irakasleentzako Arretaren, eta Bizikidetzaren Atalean gida hau modutu eta helarazi nahi izan dizuegu, lagungarri izan dezazuen zuen guraso lan zail horretan, seme-alabak egun osoan denetariko dispositiboetara konektaturik bizi diren garai honetan.

Ezin uka daiteke Internetek mesede eta egokiera on asko ekartzen dizkiela gure belaunaldi berriei: komunikazioa, informazioa, aisia, ezagupenak... Hala ere, helduek ongi jakinaren gainean egon behar dugu arrisku batzuk era badituela, eta batzuetan ondorio larriak izan ditzakeela.

Gure haurrak mugitzen diren agertokiak asko aldatu dira teknologiar dagokionez. Gaur egun, erabat ahaztu behar ditugu berriki arte nagusi izaten ziren unitate estatikoak, kontrolatzeko errazagoak zirenak, ordenagailua, kasu. Gaur mobilen bidezko konexioei eman behar diegu garrantzi gehiago, hartxek ematen baitie, izan ere, aukera noiznahi eta non-nahi konektaturik egoteko. Horregatik, Interneteko arriskuak baztertzeko, balioen gaineko heziera eta eginahala da beharrezkoena; bestela galdurik ibiliko gara hain besarka-ezina den errealitate baten aurrean.

Zer egin behar dugu?

Arreta hartu. Arreta hartzea guk helduok ditugun eginbeharretako bat da, haur horien babesa eta hezkuntza gure lanaren parte baitira. Kezkatzea, ordea, ez da ezertako, ez eta, bestela, ezer jakin nahi ez izatea ere, haurrari konfiantza egiten diogula esanez, edo ez dakigula gure zaintza hori nola egin. Batez ere haiek gero eta baliabide teknologiko gehiago dituztelako eta gero eta goizagotan, gainera.

Gidaren Helburuak

- Familiei informazioa ematea haien seme-alabek teknologiak nola erabiltzen dituzten jakin dezaten.
- Teknologien erabilera bultzatzea haurrentzat elementu integratzaile eta garatzailea diren partez.
- Haurrek mehatxu dituzten arriskuen gaineko informazioa ematea.
- Ohartaraztea zenbateko garrantzia duen gai hauen gaineko prebentzioan lan egiteak.
- Gurasoei jokabideak ematea teknologiak nola ongi erabili jakiteko.

NOIZ HASI ARRETA HARTZEN?

Horrelako ezer ikusi al duzu
etxean?
Baiezkoan, oraintxe da
momentua arreta hartzen
hasteko; ez, ordea, kezkatzen.



Gida honekin lortu nahi genuke zuek gurasook ez bakarrik sentitzea, eta ongi ulertzea zuen haurren Internet erabilera osasuntsua eta normala dela, beti ere erabilera hori gehiegizkoa ez bada, eta errespetuz eta arduraz egiten bada.

Baliteke gurasook kasu hauetakoren batean egotea:

- Guraso “erdi” deskonektatuak zarete, eta haurrei nahi duten guztia egiten uzten diezue.
- Edo guraso “deskonektatuak” zarete baina larriminez eta beldurrez bizitzen



duzue zuen haurren bitza konektatua.

- Edo beste alde batera begiraten duzue.
- Edo bestela guraso “hiper-kezkatuak” zarete...

Batera nahiz bestera, nolnani ere zareten, helduok lerro bakarra dugu lan egiteko: **hezkuntza**. Hura izango da Internet eta Komunikazio teknologiak behar ez bezala erabiltzetik etor daitezkeen nahigabeei aurrea hartzeko bide egokiena.

FORMULA MAGIKORIK BA AL DUGU?

Damu dugu ezetz esan beharra; aurrerago irakurtzen segitu beharko duzula, beraz.

Gaur den egunean, eta teknologia egunetik egunera dispositibo eta aplikazioei dagokienez hainbeste aldatzen delarik, ez dago formula magikorik. Hala ere, pixkanaka ikasiz joan gara zerk ematen duen emaitzarik hoberena: prebentzioa, informazioaren eta hezkuntzaren bidez, batez ere balioei dagokienez.

Teknologien arloan, gure hurrekin lotura duten gainerako beste arlo guztietan bezala, hezkuntza funtsezkoa da, haurrek jakin dezaten nola erabili beren burua agertu, gauzak trukatu eta komunikatzeko aukera ematen dien ingurune berri hau, beti ere errespetua eta jarrera arduratsua oinarri dituztela, horiek baitira Interneten arazorik gabe nabigatzeko jarrera ezinbestekoak.

Duela oso denbora gutxi arte, bazirudien aski zela ordenagailuak iragazki batez babestea eta besterik gabe horrexekin gure haurrak salborik eta seguru egongo zirela. Gaur, ordea, mobilen teknologia dela medio, gauzak aldatu dira. Gure haurrak, gaur, noiznahi eta non-nahi konektatzeko moduan daude, zernahi dispositiborekin, dela finkoa, dela mugikorra.

Hori guztia gogoan, garrantzi handikoa da pisu gehiena hezkuntzari ematea, haien segurtasuna barrendik, haien baitatik bertatik bermatzeko; horrela, baliagarri izango dituzten balioak eta informazioak emanda, probetxurik handiena ateratzeko gauza izango dira eskura dituzten eta hain mesede handia egin diezaieketen tresna horiei.

Helduak garen partez, utzi behar diegu gure hurrei, bai eta bultzatzea ere, teknologia hauek erabili ditzaten, baina geure eginbeharretatik ihes egin gabe, geu baikara gure seme-alabak osasuntsu haztearen erantzuleak. Lagun egin behar diegu eta aholku eman, zeren teknologia hauek ez dira arriskugabeak, eta arrisku horiek gutxitu ahal izateko, ezagutu behar.



BALIOAK BULTZATZEA

Prebentzioa lantzeari emanen diogu garrantzirik handiena, haurren hezkuntzarekin lotura duten arlo guztietatik, haien familiatik beretik hasita. Prebentziozko jarrerak hartzea bide bakarra da haurrarentzat, eta beraz familia osoarentzat, kalte izan daitezken gauzak ekiditeko.

Bi balio iruditzen zaizkigu beharrezkoenak Interneten arazorik gabe nabigatzeko, zein ere dispositibotan den: ordenagailua, Tableta edo Smartphonea.

Errespetua

Errespetua delako balioari esker gai da giza izakia beste pertsonen eta bere buruaren ontasunak aitortu, onartu, preziatu eta baloratzeko. Hau da, errespetua da norberaren balioa aitortzea eta gizabanako nahiz gizartearen eskubideak ere aitortzea.

Besteenganako errespetua;

Horregatik, ezinbestekoa da ingurune teknologikoetan ere haurrek besteak errespetatzen ikastea.

- Besteen iritziak errespetatuz foro, gizarte sare, WhatsApp taldeetan eta abarretan.
- Besteen integritate morala errespetatuz, irainak eta gaitz-esanak baztertuz.
- Besteen jabetasuna errespetatuz, nortasunak, pasahitzak eta kontuak inoiz lapurtu gabe.
- Besteen datu pertsonalak errespetatuz, hau da, inoiz besteren argazkiak eta bideoak sarera igo gabe, batez ere kaltegarri izan badaitezke.

Beren buruenganako errespetua;

Eta errespetua norbere buruarekin hasten baita, ez da gaizki izango gure haurrek ere ikas dezaten beren bizitzan eta bai ingurune teknologikoetan ere beren burua errespetatzen:

- Beren osotasun morala errespetatuz, kalte izan ditzaketen edukiak Internetera igo gabe eta inora bidali gabe. Hori da *sexting* delakoa galarazteko lehenbiziko pausoa (eduki erotiko edo pornografikoak telefono mugikorren bidez bidaltzea).
- Beren datu pertsonalak errespetatuz, adibidez, behar ez bezalako eduki duten argazki eta bideoak inoiz igo gabe sarera; horrela ez dute arazorik izango gero batean lan bila hasita edo gaur ere beren guraso edo irakasleek ikusten badituzte.
- Eginahalean datu pertsonal asko ematen ez badituzte, salborekin egongo dira bai berak eta bai haien familia ere.

Jarrera arduratsua norbere kontzientzian egoten den balio bat da; hari esker gai gara geure egintzak kudeatu, haien gainean pentsatu, eta haien ondorioak baloratzeko.

Kontzeptu hau teknologia berriei aplikatuz gero, ulertuko dugu balio hau ezinbestekoa dela teknologia horiek erabiltzeko. Eta balio horri haurrengan bultza egiten badiogu nabigatzen hasten direnetik bertatik, haur horiek jarrera gogoetatsua izango dute, eta hobeki baloratuko dituzte Interneteko zerbitzuetan egiten dituzten gauzak.

Horrela, adibidez, haur batek aurkitzen badu lagun batek Twitter saio bat irekita utzi duela, agian lehenbiziko mugida izan dezake lagun horri broma bat egitea bere tokia hartuz eta bere kontaktuentzako tuit iraingarria jarritz. Baina jarrera arduratsua garatua badu, honelako zerbait pentsatuko du: “Hori egiten badut, zer gertatuko zait? Eta nire lagunari?” Orduan berehala lagunaren Twitter saioa itxiko du, egin behar duen bezala, eta bidenabar bai arazo asko kenduko ere bere buruari eta bere lagunari.

Oroitu, seme:
Internet erabiliko duzu
Errespetuz eta arduratsu,
disgustu bat izango ez
badugu



ZEIN DIRA ARRISKUAK?

Ondoren Interneten aurkitzen ahal ditugun arriskuak banaka esango dizkizuegu.

Gehiegizko erabilera

Gurasoon lana da, geu baikara helduak, gure haurren portaera anomaloak kontrolatzea, adibidez, ezin konektatu direnean egonezina agertzen badute, edo eguneroko eginbeharrak uzten badituzte, edo asteburu batean ezin konektatu direnean haserre jartzen badira (pentsa, ordua, oporretan joaten bazarete), eta abar.

Kontuan izan behar dugu dispositibo mugikorrek eta aplikazioekin haurrek ia etengabe konektaturik egoteko premia sentitzen dutela, hor egoten baita beren kidekoen taldea, eta helduoi bestela iruditzen bazaigu ere, sozialki bakartuta sentitzen dira ezin konektatu direnean. Hezkuntzak hor duen desafioa da haur eta nerabeei irakastea dispositiboak modu moderatu batean erabiltzen. Haietako askok, mezu bat jaso orduko berehala erantzun behar dutela sentitzen dute eta horregatik gaizki sentitzen dira etengabe konektaturik ez badaude. Puntu honetan garrantzi handikoa da gauza horiek gehienak geroko utzi daitezkeela uler dezaten.

Garrantzi handikoa da gure haurrekin negoziatzea zenbat denboran erabil ditzaketen beren dispositiboak. Honako webgune honetan informazio gehiago aurkituko duzue: www.tecnoadicciones.com **Protégeles* elkarteak prestatua.

Behar ez bezalako edukietara sartzea

Sarearen bidez haurrek aukera dute behar ez bezalako edukia duten webguneetara sartzeko, hauxe da hasiera-hasierako arriskua, gurasoak, Internet hasi zenetik, beti kezkatu izan gaituena. Zer ikusten ote dute gure haurrek Interneten? ¿Sexua? ¿Indarkeria? ¿Apustu jokoak?... Arazo honen aurrean maiz suertatzen baikara, konponbide batzuk badira, hala nola edukietarako iragaziak jartzea. Baina iragazki horietako batek etxeko ordenagailua babestu dezake, baina telefono mugikorra ez, edo adiskide baten etxekoa ez, eta gainera ez ditu inoiz eduki guztiak iragazten. Horregatik, gure apustua, berriro ere, prebentziozko hezkuntza da, gure haurrak ez daitezen sartu haientzat behar ez bezalako edukiak dituzten orrialdeetara.

* *Webguneekiko lotura guztietan, Kontrol + enter sakatu hiperlotura irekitzeko.*

Jabetza intelektualaren kontrako erasoak

Erakutsi behar diegu gure hurrei Interneten aurkitzen dugun eduki guztia ez dela libre erabiltzekoa, horietako askok jabetza intelektualeko eskubideak izan baititzakete, egile-eskubideak alegia. Hau da, gure hurrek adibidez argazki bat aurkitu eta askotan berea balitz bezala erabiliko dute eta hori ongi da baina beti ere erabilera librekoa bada soilik. Hartarako, badaude erabilera libreko edukiak dituzten webguneak, erabil ditzakegunak.

Sexu jazarpena edo 'Grooming' delakoa

Grooming esaten zaio, ingelesez, heldu batek jakinaren gainean zenbait aurrerapen egitea Interneten haur batekin lotura sortu edo adiskidetzeko, helburua sexu satisfazioa lortzea dela, haur horren irudi erotiko edo pornografikoen bidez, edota, baita, haur horrekin sexu-topaldi bat antolatzea, askotan haurren kontrako konfiantza abusua eginaz. Batez beste, badirudi heldu batek bi hilabete behar izaten dituela haurraren konfiantza irabazi eta harekin fisikoki zita bat izateko.

Web honetan www.quenoteladen.com delitu klase honen gaineko informazio zabalagoa lor daiteke, eta aukera ematen du, gainera, halako jarduerak salatzekeo tresna bezala erabiltzeko.

Intimitatearen kontrako erasoak. Adibidez, 'sexting'

Sare sozialak, dispositibo mugikorrek eta haien aplikazioak hainbeste zabaldu direlarik, gero eta gehiago geure burua jendaurrean jartzen hasi gara. Geure intimitatea galtzen ari gara, bestela esan, oharraren gainean nahiz oharkabean, gauza asko besteen esku jarritz, hasi geure datu pertsonaletatik (izena, deitura, helbidea, telefono zenbakia, argazkiak, bideoak) harik eta geure ohitura edo bizimoduetaraino.

Gaur, gainera, geuk geure buruaz argitaratzen duguna ez ezik, besteek gutaz argitaratzen dutena ere agertzen hasi da jendaurrean, edo guk beste batzuen gainean argitaratzen duguna.

Gaur egun zenbait gaztek intimitatearen kontrako oso eraso larria bizitzen ari dira: **Sexting** delakoa, hau da, sexu kutsuko argazkiak eta bideoak, eskuarki bidaltzaileak berak eginak, telefono mugikorren eta sare sozialen bidez beste pertsona batzuei bidaltzea, eta handik hara beste pertsona batzuek aurrerago bidaltzen segitzea.

Delitu ekonomikoak eta iruzurrak

Teknologia hauek finantza operazioak egiteko erabiltzen ditugunean, zenbait arrisku hartzen ditugu geure gain behar bezalako prekauzioak hartzen ez baditugu, hala nola geure ordenagailuan antibirus gaurkotua edukitzea, sistema operatiboak ere gaurkoturik izatea, banku plataformetako orrialde seguruetan lan egitea, eta abar.

Har dezagun gogoan zenbait jende agian zain egoten dela gure datu horiek eskuratu eta haiekin **Phishing**, delakoa egiteko; delitu hori iruzurtzat sailkaturik dago, eta hartarako gizarte ingeniari mota bat erabiltzen da zeinean informazio konfidentziala iruzurrez eskuratzen den (hala nola, adibidez, pasahitz bat edo kreditu txartelen gaineko informazio xehatua edo bestelako banku informazioa). Iruzurlariak (ingelesez *phisher*) pertsona edo enpresa fidagarri baten tokia hartzen du eta itxuraz komunikazio ofizial bat egiten du, gehienetan mail batean, edo berehalako mezu sistemaren batean, eta bai batzuetan telefono dei baten bidez ere. Behin informazioa lortu ondoren, gure banku kontuetatik dirua ateratzeko erabiliko dute.

Iruzurrak bi ondorio zuzen izaten ditu erabiltzaileen gainean: aurrena, diru galera mardula, ziber-gaizkile horrek nahi duena lortzen duenetan; eta bigarrena, agian, konfiantza galera, halako iruzur egoera bat nozituz gero senti dezakeguna, eta ondorioz, handik aurrera Internet bidezko banku operazioei muzin egin eta berriro gure kudeaketak presentzialki bankuan egitea.



Arrisku teknikoak

Teknologia erabiltzeak baditu berekin zenbait **arrisku tekniko** (informazio galerak, funtzionamendu txarra, datu lapurreta), gure ordenagailuak sufri ditzakeenak behar bezala babestuta ez badaukagu; horregatik lehenbiziko gauza da ordenagailua antibirus gaurkotu batez babestea. Debaldeko antibirusak deskarga daitezke, baina webgune fidagarrietatik bakarrik, hala nola: www.osi.es/recursos/utiles-gratuitos, INCIBERen menpeko webgunea baita (Instituto Nacional de Tecnologías de la Comunicación).

Cyberbullying deitzen da eskolako adinkideen arteko jazarpena baliabide digitalen bidez egiten denean. Askotan jazarpena bera baina gaiztoagoa izan daiteke jazarritako neskek edo mutikoak ezin baitu inon ez inoiz ere deskantsurik hartu. Orduro ari da erasoia sufritzen, eskola orduetan ez ezik, bai ordu eta toki guztietan ere, teknologia etxera, aisilekuetara eta eskoletara ere iristen baita.

Guraso garen partez, geure lana da adi eta erne egotea gure seme-alabek jazarpenen bat bizitzen ari ote diren konturatzeko, eta sare bidezko nahiz telefono bidezko halako jazarpen kasu bat gertatzen bada, lehenbailehen moztu beharra dago, biktimaren gaineko ondorioak ahalik eta txikiak izan daitezten.

Oso lagungarria da ziber-eraso horren frogak gordetzea, hala nola jazarritakoari bidalitako SMS mezuak edo korreoak, eta bai, halaber, ikastetxea jakinaren gainean jartzea eta hango psikopedagogoen laguntza eta aholkua eskatzea, eta bai, halaber, polizia salatzea ere, hala komeni denean.

Behin jazarpen kasu bat gertatzen ari dela konfirmatu ondoren, neurri drastikoak hartu behar dira lehenbizi; aurrena, posta elektronikoko helbidea aldatu behar da, eta erasoia datorren helbidea blokeatu, eta mugikorraren zenbakia ere aldatu, kontu handia jarriz zenbaki berria ez zabaltzeko.

Seme-alabei dagokienez, garrantzi handikoa da lagunduak eta bermatuak sentitzea, eta haiei ongi aditzera ematea haien ondoan zaudetela eta denak elkarrekin problema gainditzeko gai izango zaretela. Behin egoera kontrolatu ondoren, orduan izango da garaia hurrekin mintzatu eta egoera horiek nola ekidin eta nola aurrez galarazi erabakitzeko.

Eta **Arriskurik** handiena.... Halako segurtasun problema baten aurrean:



HAURRAK ISILTZEN DIRA

Helduak garen partez, gure aukera bakarra da geure seme-alabei komunikazio eta konfiantza handiko ingurune bat eskaintzea, gauza izan daitezten edozer problemaren aurrean gurekin mintzatzeko, zerengatik teknologian asko ez badakigu ere, bizitzan, berriz, gehiago dakigu eta beti lagundu ahal ditugu edozer problemaren aurrean.

ETA ORAIN... ZER EGINGO DUGU?

Gomendio batzuk aplikatu ditzaitez, teknologia hauek gure seme-alaben garapenean tresna onuragarria izan daitezke.



Internet konexio bat dugunerako gomendio orokorrak

Gauza bat har dezagun oinarri: problemak ez dituzte dispositiboek sortzen, ez eta Internet konexioek ere. Problemak, tresna horiek erabiltzen dituzten pertsonak sortzen dituzte, haiexek ematen baitiete arima tresna horiei.

Gainera, pentsa dezagun zenbait arau badirela gure hurrek barrendu beharrekoak teknologia hauekin lehenbiziko kontaktu hartzen duten momentutik, zeren kontaktu hori, gainera, gero eta goizagotan hasten baita, gaur egun 2 eta 3 urte inguruan, *Protéges* erakundeak egindako ikerlan batek dioenez:

“Egoera berri honek egokiera ederra ematen du, halere. Haurrak 13-14 urte inguruan hasten zirenean Internetekin lehenbiziko kontaktuak izaten, adin horretan oso zaila izaten zen gurasoek eta seme-alabek teknologien inguruan solas egitea eta informazioa trukitzea. Nerabeek, izan ere, ez dute inolaz ere nahi izaten gurasoek beren sare sozialetako profila ikustea, edo beren elkarrizketen gainean gomendioak ematea, edo sarean jarri nahi dituzten argazkiak aldeztatik ikustea. Nerabe denboran adinkide taldearen pisua izugarri handia da eta nerabeek nabarmen gurasoengandik urrundu nahi izaten dute. Telefono mugikor Internet-dunak, Internet erabiltzen hasteko adina asko jaitsi dute, eta hortaz oso haur txikiak ikusten ditugu Interneten eta oro har Teknologia berriak erabiltzen. Adin horretako haurrek interakzio handia izaten dute beren gurasoekin, eta kasu handia egiten diete haien aholku eta kontseiluei. Jostetaren bidez ikasten dute, eta gainera asko gustatzen zaie helduekin egitea josteta, haiei erakustea zer dakiten egiten, zer ikasi duten, zer bideo ikusi dituzten edo jokoren batean zer maila harrapatu duten. Telefono mugikor berri hauek, beraz, aukera ona ematen diete haur txiki-txiki gurasoei haiekin hezkuntza-lan handia egiteko. Haiekin eseri, praktikatu eta haien ondoan ikasteko ere. Horri esker, haurrek aukera ederra izango dute josteta bat balitz bezala hasteko teknologia berriak erabiltzen, eta hainbat gai haiekin joratzeko, hala nola zer argazki

mota dauden, intimitatea babestu beharra, besteenganako errespetua eta beste asko, modu natural eta gatazka gabean”.

Ikus dezagun, bada, zer gomendio diren etxean lehenbiziko Internet-aldietatik bertatik aplikatu beharrak:

1. Teknologiekin egunera jar gaitzen

Guraso kezkatuak garen partez, gure bide bakarra da lanari lotu eta ulertzen hastea zer mundu motatan mugitzen ari diren gure seme-alabak. Eta ordenagailuetan tutik ere ez badakigu, ideia ederra da oinarrizko ikastaro bat egiten hastea, zerbait ikasteko; eta, aitzitik, ordenagailu kontuan oso trebeak izan bai baina orain moda-modan dauden hitz batzuk ez baditugu ulertzen, seme-alabei galdetzea daukagu hainbat hitzek zer esan nahi duten: *WhatsApp, Twitter, Instagram, Facebook, Youtube...* hitz horiek etengabe agertzen dira haurren solasetan eta eguneroko bizitzan, eta haien esangura eta erabilera gurekin partekatzean, haienganako zubi eta hurbilbide bat izango dugu.

2. Lehenbiziko konexiotik arau garbiak

Arestian esan bezala, zenbat eta goizagotanik hasi gure seme-alabak teknologia hauen erabileran hezitzen, orduan eta hobea izango da haientzat egingo dugun prebentzio lana. Horretarako, beharrezkoa da haurrek ikus dezaten oso argi daukagula nola erabili behar diren teknologia horiek, beti gogoratu eta aplikatzen ditugula Interneten ibiltzeko arau oinarrizkoak. Dispositibo bat etxean sartzen denetik, finkoa izan nahiz mugikorra, adibidez, telefono mugikorra erosten duzuen egunean bertan, kontratu bat sinatzea daukazue hainbat gai zehaztu eta finkatzeko: zer ordutan erabili, zer aplikazio deskargatu, nola portatu eta abar.

3. Dispositiboek hartzen duten eremu fisikoa kontrolatzea

Adibidez, etxeko ordenagailu finkoa, eremu komun batean ezarriko dugu, hala nola egongela edo familia maizenik egoten den gela; hartara, kontrol bat egingo dugu haurrak inbaditurik sentitu gabe, eta horrela gurasoek nahi ez lituzketen gauzak egitea galaraziko.

Dispositibo mugikorrak, bai tabletak nola telefonoak, kargatzeko, berariaz prestatutako toki batean utziko dira gauean, etxeko lanen orduan eta otorduetan. Toki hori, nahi baduzue, “mobilen parkinga” deitu daiteke.

Beste alde batetik, garrantzi handikoa da, ordenagailua haurren gelan egoten bada, haren pantaila ateari begira egotea, eta ate hori irekita egotea. Pantailak ez du sekula ateari bizkar emanda egon behar.

4. Erabilera denborak ere mugatu

Gure haurren inguruko gainerako alderdi guztiak bezala, kontrolatu behar da zenbat denbora egoten diren telebista ikusten, bideojokoetan, kiroleetan edo ikasten. Teknologia ez dira aparteko kontu bat eta familiei dagokie aisian eta Internetez komunikatzen pasatzen duten denbora kontrolatzea.

Mobila erabiltzeko denbora kontrolatzeko modu ona da, esan bezala, mobilen parkinga erabiltzea.

5. Aplikazioak deskargatu ahal izateko pasahitzak jarri

Pasahitz bat jarri ezazue nola Tabletean nola telefono mugikorretan aplikazioak deskargatu edo gauzak erosi ahal izateko. Zuk beste inork ez dezala jakin pasahitza.

6. Dispositiboak segurtasun sistema batez babestuta eduki (antibirusa, su-kontrakoa)

Internet gaizki erabilia kalterik ez hartzeko, garrantzi handikoa da gure sistemak osotarako segurtasun sistemen bidez babestuta edukitzea. Horretarako ez da ez ezagupen handirik ez eta inbertsio handirik ere behar; are gehiago: debaldeko segurtasun sistemak aurkitzen dira helbide honetan: www.osi.es/recursos/utiles-gratuitos.

Segurtasun sistema bat ez ezik, behar-beharrezkoa da sistema operatiboak gaurkoturik edukitzea ere.

7. Edukiak iragazteko sistemak jarri dispositibo konektatuetan

Komeni da etxeko ordenagailu eta telefono mugikorretan eduki-iragazkiak jartzea, "Edukien gaineko gomendioak" atalean gero ikusiko dugun bezala. Jakin behar dugu, hala ere, iragazki bat ezarrita ere ez dugula etsi behar gure haurrek nola nabigatzen duten kontrolatu beharretik.

8. Zuen seme-alabentzat erabiltzaile kontu propioak sortu.

Konproba ezazue pribazitate mailak goreneko mailan daudela (ikus "aukerak" edo "opciones" menua zure nagibatzailean).

9. Web kamera zentzuz erabili

Webcam delakoa oso tresna baliagarria da komunikatzeko, eta zenbait arau aintzat hartzen badira ez digu batere arazorik ez kezkarik eman behar. Arauak argiak dira: web kamera erabiltzen ari ez garenean, nahiz eta dispositiboa itzalita egon, kamerak gora begira egon behar

du, edo paretara, edo kajoi batean sartuta, dispositibo finkoa bada. Eta Tablet bat, Smartphone bat edo ordenagailu mugikorra denean, aski da kameraren gainean pegatinatxo bat jartzea. Dispositibo kameradunak ez dira inoiz bainu gelan sartuko, edo haurra atea itxita egongo den eremuetara.

Segurtasun neurri hauek garrantzizkoak dira zeren bestela gerta daiteke guk gaizki erabilia (antibirusik ez izatea, ireki behar ez ziren artxiboak irekitzea eta abar), artxibo espia direlakoren bat gure dispositiboan ezarri eta etxe barrenean grabazioak martxan jartzea, eduki konprometitukoak, ondoren etxekoren bati txantajea egiteko erabil litezkeenak.

Horrez gain, behin eta berriz esan behar diegu seme-alabei web kamera soilik konfiantza handieneko jendearekin erabiltzeko eta aldian behin baizik ez.

10. Interneten ari direlarik, seme-alaben ondoan egon

Kezkatzea alferrik izango dugu, gero gauza izaten ez bagara gure seme-alabek Interneten egiten dutenari arreta emateko. Interesgarria da gure seme-alaben ondoan egotea Interneteko mundu baztergabe horretan ari direlarik. Ezin utziko diegu bilaketa horiek guk gainbegiratu gabe egin ditzaten. Jar dezagun adibide bat: gure seme edo alabak auto-joko bat bilatu nahi du Interneten; guk, helduak garen partez, lagun egingo diogu bilaketa horretan. Aurkitzen duen orrialdeak egokia ematen badu, eta bai jokoa ere hala, utziko diegu orduan jokatzen, beti ere oroitaziz joko aldatu nahi badute, abisatu behar dituzte.


11. Segurtasun arazoren bat izaten baduzue, jo ezazue erakunde espezializatu batera

Aurrena, gogora dezagun geure ondoan gure seme-alaben hezieran parte hartzen duten entitateak dauzkagula: ikastetxeak, adibidez, eta horiek zenbait jarraibide eta jokabide ematen ahal dizkigutela.

Era berean, jakin behar dugu zenbait erakunde berriaz aritzen direla haurrak Interneten nola babestu ikertzen, hala nola www.protegeles.es edo www.fundaciondedalo.org teknologia berrietan espezializaturik dauden webguneak, gainera.

Zuen seme-alabekin segurtasun arazorik txikiena izaten dugunean (*ciberbullying*, jazarpena, irainak, nortasun lapurreta, eta abar), haietako edozeinek laguntzen ahal dizute.

Maizenik, edukiak bilatzeko erabiltzen dugu Internet. Edozer gauza aurkitzen ahal dugun toki bat balitz bezala erabiltzen dugu: dela aisiarako, komunikaziorako edo lanerako. Horretarako, bilatzaile ahaltsuak badaude, nahi dugun tokira iristen laguntzen digutenak. Gaur egun gehien erabiltzen dena Google da. Hala ere, bilatzaile horien aurrean geure zentzu komuna eta kritikoa erabili behar dugu. Eta askotan, nahasten ditugu bilatzailearen barra (toolbar), nabigatzailean ezarria (irudian **2** batez markatua) eta nabigatzailearen helbide barra bera (irudian **1** batez markatua).



Helbide barra (1) eta Google barra (2)

Hobe da haurrak ohitzea beren bilaketa helbide barratik egiten, baldin sartu nahi duten webgunearen izena badakite. Horrela ez dira, maiz gertatzen den bezala, hainbeste distrakituko bilatzaileak eskaintzen dizkien beste orrialde asko eta askorekin.

Zenbait tresna oso lagungarriak izaten ahal zaizkie gurasoei edukiei dagokienez, beti ere baldin gure seme-alabak 10-11 urte inguru baino txikiagoak badira. Tresna horiek, dispositibo finko nahiz mugikorretan ezar daitezkeenak, edukiak iragazten dituzte:

Haurrentzako nabigatzaileak


www.kidoz.net



Haurrentzako bilatzaileak

www.buscadorinfantil.com

www.kidrex.org



YouTube Kids



Berriaz haurrentzat diren edukiak ere bilatzea daukagu, adibidez, Youtubeko kanal berri hau, bideoak ikustekoa. Debaldeko aplikazioa da, telefonoan, ordenagailuan edo tabletean deskarga daiteke, eta adinarentzat egokiak diren bideo, kanal eta banaketa zerrenden bilduma dira.

Aukera dugu, halaber, **Google iragazkiak aktibatze**ko, horiek bide ematen baitigute nabigatzailearen konfigurazioa aldatzeko, bilaketaren emaitzetan helduentzako edukirik agertu ez dadin. Googlek metodo automatizatuak erabiltzen ditu behar ez bezalako edukia identifikatu ahal izateko. Sexu esplizituko edukiari dagokionez, iragazki honen oinarria algoritmoak dira, hainbat faktore kontuan hartzen dituztenak: loturak, gako hitzak eta irudiak barne. Ez dago %

100ean fidagarria den iragazkirik, baina **SafeSearch iragazkiak** laguntzen ahal dizu halako eduki gehien-gehiena baztertzen.

Aurreko aukerez gain, www.osi.es/es/recursos/utiles-gratuitos webgunetik debaldeko guraso kontrolak iritsi ditzakegu.

Kapitulu hau bukatzeko, intsistitu nahi dugu **hezuntza** dela beharrezkoena, edozer tresnaren gainetik, gure seme-alabek Interneten egiten dituzten egintzak kontrolatzeko, gure seme-alabak aurren-aurreneko belaunaldi konektatu mugikorrek baitira, hau da, jadaneko ez direla bakarrik etxean konektatzen (mahaiko ordenagailuen bidez), baizik eta mobil Internet-dunak dituztela (Smartphone) eta horregatik non-nahitik egiten ahal dutela konexioa, horrela Interneten erabilgarritasuna handituz oso.

Internet zerbitzuetako erregistroen gaineko gomendioak

Interneten beste erabilera handi bat egiten dugu: aplikazioak, zerbitzuak eta plataformak bilatzea elkarrekin komunikatu, aisia aldiak pasatu eta halakoetarako aukera ematen digutenak. Sare sozialak, online erosteko webguneak, foroak, chatak, posta elektronikoa dira, besteak beste, geu eta geure seme-alabak oso maiz sartzen garen “errealitate birtualak”. Zerbitzu hauek erabiltzeko, erabat beharrezkoa da haietan lehendik erregistratzea, jakinaren gainean gaudela edozein erregistrok **geure datu pertsonal** guztiak emango dizkiela plataforma horiei: izena, deiturak, helbide elektronikoa, jaioteguna, telefono zenbakiak, gustu eta afizioak, argazkiak eta abar.

Gurasoendako lehenbiziko araua Interneten, zera da: **'14 urtez beherakoek ezin dute beren datu pertsonalik eman Interneten'**, beraz, gure seme-alabek zerbitzu batean erregistratu nahi badute, guri esan beharko digute eta guk helduok sartuko ditugu geure datu pertsonalak, hala eskatzen digutenean.

Horrez gain beste gauza batzuk aintzat hartu beharko ditugu erregistratzean:


1. Internet zerbitzu egokiak aukeratu

Jakin behar dugu Internet eskaintzen diguten plataformak eta zerbitzu guztiak ez direla beti egokiak, eta beraz, lagundu behar diegu gure seme-alabei egokienak diren zerbitzuak aukeratzeko.

Nola lagunduko diegu aukeratzeko? Gurasoak bagara ere, zaila egiten bazaigu ongi aukeratzeko, hona hemen gomendio batzuk:

- ➡ Haurrak erregistratu nahi duen plataformak zer itxura fisikoa duen.

- Bigarrenik, garrantzi handi-handikoa da **erabilera arau orokorrak irakurtzea** Internet zerbitzu batean erregistratu baino lehen, sare sozialak izan, posta elektronikoak, webgune komertzialak izan... erabilera baldintza horietan zenbait alderdi garrantzitsu ematen zaizkigu aditzera, hala nola jabetza intelektualeko eskubideak, erabilera adina, zer legeren menpe dauden eta halako beste gai garrantzitsu batzuk.
- Azkenik, Interneten ere bila dezakegu informazioa eta delako plataformak zer ezaugarri dituen ikasi; ondoren, adibidez, komunikazio anonimoa errazten dutenak baztertzeko, hala nola adibidez *Ask.fm*. eta antzekoak. Edo mezuak segundo gutxitan suntsitzeko aukera ematen dutenak, horiek material konprometitu trukatzea errazten baitute. Horietako bat da, adibidez, *Snapchat*. Azken finean, haurraren **intimitatea arriskuan jartzen duten guztiak arbuia behar dira**. Hartarako, aintzat hartu behar ditugu kasuko zerbitzua egokia den ala ez adierazten diguten seinaleak.




2. Kasu eman pasahitzak jartzerakoan

Erabakita daukagu, bada, zer plataforma erabili behar dugun. Goazen, ba, erregistratzera. Interneten erregistratzen garenean pasahitz bat sartzeko eskatzen digute gehienetan, geure segurtasunerako. Pasahitz hori tekleetuko dugu zerbitzu horretara sartu nahi dugun bakoitzean. Batzuetan ez diogu axola handirik edo arreta handirik ematen eguneroko bizitzan hain maiz erabiltzen dugun pasahitzaren kontuari. Posta elektroniko pertsonala, lantokiko e-maila, Facebookeko kontua, Instagram, kreditu txartela, etxeko alarma, mobileko PINa, eta abar, baina pasahitzei, duten garrantzia eman behar zaie, tresna horrek edukiko baititu babestuta Interneten erabiltzen ditugun zerbitzuak.

Horregatik zenbait neurri oinarrizko hartu behar ditugu kontuan Interneten **pasahitzak** erabiltzeari dagokionez:

- Pasahitzak **sendoak izango dira**, hau da, 8 karaktere alfanumeriko erabiliz, letra txiki nahiz larriak nahasiz eta tartean zeinuren bat ere jarritz.
- Komeni da erregistraturik gauden zerbitzu bakoitzean pasahitz bana erabiltzea. Bat posta elektronikorako, beste bat sare sozialetarako, beste bat blogerako, eta abar... Hartara, pasahitz bat aurkitzen badizute ere, ez dute lortuko zure zerbitzu guztietara sarbidea izatea.
- Ez utzi ekipoek zure erabiltzaile izena eta **pasahitza automatikoki gogora** dezaten. Horretan erne ibili behar duzue, zeren zerbitzu batzuek aurretik konfiguratuta edukitzen baitute, besterik esan ezean, kontua eta pasahitza gogoratzeko aukera hori.



- Azkenik, garrantzi handia du **Internet saioak behar bezala ixteak**, hau da, ez inoiz x () erabiliz itxi, erabiltzen ari garen zerbitzuaren barrendik baizik.

Erabiltzen ditugun zerbitzuen gaineko gomendioak

Behin zerbitzuak aukeratu eta erregistratu ondoren, has gaitzke aplikazio horiek erabiltzen. Ikus dezagun bada zein diren erabilienak:

1. Posta elektronikoa

Posta elektronikoa, joan deneko hamar urte honetan, sarean hedadura handiena hartu duen mezu bidezko komunikazioa da, baina ez litzateke harritzeko baldin beste komunikazio sistema batzuk sortu eta sarean ezartzean, e-mailak garrantzia galtzea. Posta elektronikoa, bestalde, beste zerbitzu batzuk erregistratzeko bide gisa ere erabiltzen dugu.

Ondoren zenbait gomendio egingo dizkizuegu e-postarekin arazorik ez izateko:

- Kontaktu bat baino gehiagotara bidalketa egiten dugunean, kopia ezkutuarekin egitea (CCO). Horrela egiten ez badugu, hirugarrenen datuak zabaltzen ari gara haien baimenik izan gabe. Eta hori printzipioz ez da legezkoa.

Mal= gaizki

Bien=ongi



- Komeni da, halaber, “Hoax” (engainuzko posta elektronikoko mezuak, katean banatzen direnak) izan daitezkeen postak iragaztea.
- Posta helbide bat baino gehiago izatea: pertsonala, profesionala eta komertziala.
- Ezagutzen ez ditugun artxibo erantsiak ez irekitzea.

2. Sare sozialak

Arestian azaldu bezala, **sare sozialak** dira bertatik atera gabe hainbat jardura egitea ahalbidetzen duten plataformak. Horregatik oso erabiliak eta haien erabiltzaileentzat oso baliagarriak dira.

Askotariko sare sozialak aurkitzen ditugu gaur egun, haietako askok, ezagunenek, bizitza soziala erraztu eta edukiak trukatzeko izaten dute helburu; halakoak, dira, adibidez, sare sozial ezagunenak: *Facebook* eta *Twitter*. Beste sare sozial batzuk, berriz, ingurune profesionalekoak dira, eta haietan jendea biltzen da beren lanbide profilak trukatu eta partekatzeko; horietako bat

LinkedIn da. Beste batzuk, irudiak biltzeko sare sozial tematikoak dira, hala nola *Instagram* eta *Pinterest*, gero eta azkarrago zabaltzen ari direnak *Twitter* bezalako beste batzuekin erabiltzen ahal direlako eta oso baliagarriak direlako kanal sozial gisa.

Haurren erabilera eta azturak ezin biziagoko martxan aldatzen dira. Horregatik ez gara inolako plataforma edo zerbitzu jakin batean Zentratuko; jarraibide orokor batzuk aipatuko ditugu plataforma sozialak ongi erabiltzeko.


Gomendioak sare sozialak ongi erabiltzeko. Haurrei dagokienez oso garrantzi handiko zenbait alderdi aintzat hartu behar dira:

1. Sartzeko adina eta baldintzak kontrolatzea

Sare sozialak erabiltzeko adina kontrolatu behar da. Oro har, sare hauek 14 urtez beherako inor sartzera debekatzen dute. Hartarako erabilera baldintzak irakurri behar dira. WhatsApp, adibidez, 16 urtez gorakoentzat da.

2. Intimitatea kontrolatzea sare sozialetan

Gurasook kontrolatu egin behar dugu gure seme-alabek nola duten konfiguraturia pribazitatea erabiltzen duten plataforma guztietan; Twitterren, adibidez, oso normala da profil publikoak konfiguraturik edukitzea eta profil horien bidez, haurrak maiz aritzen baitira nabigatzen, horko jarduerarekin beren bizitzaren halako egunkari bat sortzen dute, ikusi nahi duten guztiei irekia. Lotura hau oso baliagarria izango zaigu: www.deaquinopasas.org



3. Haurren kontaktuak kontrolatu

Beste aldetik, haurrak sare sozialetan dituen **kontaktuak kontrolatu beharra dago**. Ezinbestekoa da hori, adibidez, *Grooming* delakoa galarazteko (heldu batek haur bati egiten dion jazarpena).

Haurrei helarazi behar diegun mezua oso argia izango da:

- Sare sozialetan benetako bizitzan dituzten adiskide eta lagun berak izateko. Oso gauza mesedegarria da hartarako gure seme-alabekin beren kontaktu zerrenda errepasatzea eta fisikoki ezagutzen ez dituztenak kentzea.
- Bultza egingo diegu ezagutzen ez dituzten kontaktuen gonbidapenak ez onartzera; duda gutxi izan dezatela kontaktu bat kendu edo blokeatzeko orduan.
- Eta, jakina, inoiz ez dezatela zita bat hartu ezagutzen ez duten norbaitekin.

Helduak eta arduradunak garen partez, intsistituko dugu:

- Sare sozialetan informazioa partekatzen dut, baina ene intimitatea nahiz besterena ezertan kaltetu gabe.
- Ezagutzen ditudan beste pertsonen gainean dudan informazioa errespetatzen dut eta ez dut haien baimenik gabe sare sozialetan argitaratzen.
- Ez dut ezer argitaratzen gero batean niretzat konprometigarria izan daitekeena.

4. Sare sozialetara igotzen diren irudiak kontrolatu

Facebook sare sozialak aditzera eman du egunero 250 milioi irudi baino gehiago gorderik dauzkala, hau da, Espainiako biztanle bakoitzak egunero bost irudi igo balitu bezala. Google+, Google-ren sare sozial berriak esan du dagoeneko 3,4 miloi argazki gorde dituela, 100 egunetan. Halako zifrak gogoan, ezin aipatu gabe utziko dugu zer prekauzio hartu behar dituzten hurrek Interneten argazki edo bideo bat partekatu baino lehen.

Argazki eta bideoekin kontuan hartu beharreko gauzak:

Ez igo edo bidali material konprometitua;

Ezin da galarazi sare sozialetako erabiltzaileek Internetera argazkiak igotzea, oso modu azkarra, eroso eta eragingarria baita haiek partekatzeko. Hala ere, guraso baten ikuspuntutik, hobe litzateke ahal den beranduena hastea argazki eta bideoak partekatzen haien protagonistak gure haurrak badira.



Kontuz ibili behar da ez dezaten ezer igo sarera gaur bertan edo gero batean kaltegarri izan dakiekeenik.

Gaur egun hurrek gero eta material grafiko gehiago izaten dute eskura, beren mobiletan bertan argazki kamera edukitzen baitute eta horri esker gauza baitira egiten duten guztia erregistratzeko. Imajina dezagun, adibidez, nerabe bat botellon egitera ateratzen dela; gehiegi edan eta adiskideek argazki bat ateratzen diote momentu hartan; ondoren Internetera igotzen dute eta beste adiskide guztiekin partekatzen. Argazki hori hortxe geldituko da Interneten eta agian gurasoek, irakasleek edo beste edozeinek ikusiko dute... eta handik denbora luzera, baita, agian, mutikoa kontratatu behar duen enpresa bateko giza baliabideen zuzendariak ere.

Bereziki aintzat hartu beharrekoa da **sexting** arriskua, lehen ere aipatu duguna: beste norbaiti eduki sexuareko argazkiak eta bideoak bidaltzea, gehienetan bidaltzaileak berak eginak, telefono eta sare sozialen bidez; ondoren argazki bideo horiek hirugarrenek zabalduko dituzte

are gehiago. Hurrei behin eta berriz esan behar zaie ez inoiz bidaltzeko jendaurrean ikusterik nahi ez duten argazkiak.

Argazkiak deskarga daitezke;

Internetera igotako arazki guztiak deskarga daitezke. Sare sozial batzuek aukera ematen dute, egia da, argazkien deskarga galarazteko, baina azken finean ordenagailu bateko pantailan agertzen den edozein irudi deskarga daiteke oso modu errazean: aski da “Pantaila Inprimatu” tekla sakatu eta irudia harrapatuko du, edo bestela besterik gabe pantailari argazkia atereaz.

Oso garrantzi handia du hurrei esplikatzeko ez dituztela erabili behar materiala suntsitzea errazten duten aplikazioak, momentu hauetan *Snapchat* bezalakoak, horiek material konprometitua zabaltzea errazten baitute.

Argazki edo bideo bat igotzeko, haietan agertzen diren pertsonen baimena behar dugu;

Espainiako Datuak Babesteko Agentziak (AEPD) eskubidea aitortzen dio herritarrari bere datu pertsonalak kontrolatzeko eta haien gaineko erabakiak hartzeko. Kontuan harturik argazkiak eta bideoak ere datu pertsonalak direla, eskubidea dugu horiek argitaratu ala ez erabakitzeko, eta inork ezin ditu guk jakin gabe eta gure baimenik gabe argitaratu. Eta, alderantziz, besteen informazioa ere babesteko obligazioa dugu. Horregatik ezin dugu haien argazki edo bideorik haien baimenik gabe argitaratu.

- Erantzunbeharra izan dezakegu besteren irudiarri, izen onari edo intimitateari egindako kalteengatik.
- Interneten argitaratzen diren datu pertsonalak edozeinen esku egoten dira, gure kontroletik at joaten dira, eta oso zaila izan daiteke gero kentzea.
- Beste pertsona batzuk arriskuan jar ditzakegu, batez ere irudiek haurrak edo adin txikikoak dauzkatenean.
- Internetek oso ezaugarri bereziak ditu: mundu fisikoan gauza bat gustu txarreko broma izan daiteke, baina hura bera, Interneten, oso kalte handiaren jatorri izan daiteke.

Informazioa zabaltzeko, komeni da AEPDn dokumentazioa begiratzea:

Internet erabiltzaileendako gomendioak:

http://www.agpd.es/portalwebAGPD/canaldocumentacion/publicaciones/common/pdfs/guia_recomendaciones_internet_052009.pdf

Haurren eskubideak eta gurasoen eginbeharrak jakiteko gida, haurrentzat egina:

www.agpd.es/portalwebAGPD/canal_joven/common/pdfs/recomendaciones_menores_2008.pdf

Argazki bat ezin kontrola daiteke Interneten;

Behin argazki bat edozein dispositibotatik atera ondoren, ezin kontrola daiteke, hura aurkitzen duten Internet erabiltzaile guztien eskura eta menera gelditzen baita. Behin bidali edo plataforma batera igo ondoren ezabatu nahi badugu ere, ezin eginezko gauza izango da.

Telefono Internet-dunen gaineko gomendioak (smartphones)

Telefono Internet-dun berriak edo **Smartphones** direlakok agertu direnetik, Internet konexioa mugikorra egin da eta gurasook, orain, beste lan bat dugu: gure etxeetan sartu diren dispositibo txiki horiek ere kontrolatzea, gure seme-alabak gainerako munduarekin konektatzeko gai direnak.



Gure seme-alabek telefono Internet-dunak erabiltzean aurkitzen dituzten arriskuak gida honetan guztian xehatu ditugun berberak dira:

gehiegizko erabilera, dependentzia, intimitatearen kontrako mehatxuak, eduki desegokiak aurkitzea, *sexting*, *grooming*, *ciberbullying*... baina horiek denak areago berretuak dispositibo horiek non-nahi eta noiznahi eskuragai eta erabilgai daudelako. Eta gainera, dituzten ezaugarriengatik, berehala eta ezer pentsatu gabe erabiltzeko modukoak baitira.

Informazio hau zabaldu nahi duenak *Protégeles* elkarteak *Adin txikikoak eta mobilen bidezko konektibitatea Espainian: Tabletak eta Smartphoneak* gaiaz egindako txostena irakurtzea dauka.

www.dialInternetsegura.es/descargas/estudio_movil_smartphones_tablets_v2c.pdf

1. Telefono Internet-duna nola erabili

Zenbait alderdi hartuko ditugu kontuan:

- **Telefonoa erosten denean aurrean egon.** Hori da hoberena: gurasoek gainbegiratzea zer telefono erosten den, hala nola komunikazio elektronikoko beste edozer tresna. Garrantzi handikoa da gurasoak jakinaren gainean egotea tresna horiek zer zerbitzu eskaintzen dituzten eta nola erabiltzen diren.
- **Aurrez pagatutako telefonoa** modu ona izan daiteke gastua kontrolatu eta erabilera mugatzeko. Baina gero eta maizago ikusten dira familiendako paketeak, merkeagoak izaten direnak. Kasu horretan, kontratuaren baldintzei jarri behar zaie arreta; adibidez, datu tarifak ez daitezela gure baimenik gabe zabaldu ahal izan.
- **Erabilera arauak itundu**, kontratu bat edo antzeko zerbait sinatuz guraso eta haurren artean dispositibo bat erosten denean (denbora, hileroko gastua, eta zerbitzuak), telefonoaren gehiegizko erabilera edo dependentzia galarazteko.
- **Mobilendako parking bat erabiltzea.** Etxean toki bat prestatu mobilak eguneko zenbait momentu jakinetan uzteko, hala nola gauean edo otorduetan. Bidenabar, toki hori bera aprobetxatu dezakegu mobilak kargatzeko.

- **Telefonoa pasahitz batez babestuta eduki**, dispositiboa galtzen bada arazoak galarazteko.
- **Internet erabiltzeko arauak gogorarazi hurrei**, telefono Internet-duna azken finean miniaturako ordenagailua da, eta ez da beraz alferrik izango orain berriz ere zuen seme-alabei zenbait arau garrantzitsu gogoraraztea, hala nola: “Kasu eman zer eduki argitaratzen dituzuen sarean”, zeren Interneten argitaratzen den guztia oso azkar mugitzen baita eta ez baitakigu non baratuko den. Internet mugikorrak, gainera, bide ematen du bai azkarrago argitaratzeko “gertatzen ari dena” eta bai eduki hori biralki zabaltzeko. Behin eta berriz gogorarazi behar zaie hurrei zenbateko garrantzia duen haien intimitateak eta pribazitateak eta zer arrisku etor daitezkeen ezezagunekin informazioa partekatzetik.
- **Kontuz geolokalizazio zerbitzuarekin**, telefonoa daraman pertsona non den adierazten baitu eta besterik agindu ezean konektaturik datorren zerbitzua baita. Ez da gauza ona mundu guztiak jakitea zure seme-alabak non diren. Horregatik gomendatzen dugu ongi ezagutzea geolokalizazio zerbitzua nola erabiltzen den eta zertarako den, eta jakinaren gainean egotea zerbitzu hori aktibo delarik, telefono batetik sare sozial batean zerbait argitaratzen den bakoitzean argitaratutako hori ikusten duten pertsona guztiek zehazki jakin dezaketela non egin zen.
- **Bluetooth desaktibatuta eduki**, eta bai maiz erabiltzen ez diren beste kontaktu bideak ere. Komeni da deskonektaturik edukitzea birus arriskuak eta halako beste intrusio agenteak galarazteko.
- **Sinkronizazio automatikoa kontrolatzea segurtasun kopiak egiteko**, adibidez, *Android* sistema duten dispositiboetan kontu handiz ibili beharra dago *Google+era* egindako argazkiak sinkronizatzerakoan, han segurtasun kopia egiten baita. Komeni da ongi begiratzea irudiak deskargatzen diren plataformaren pribazitate baldintzak.
- **Edozer gauza gertatzen bada, ez isildu**, beren telefonoetan ezer trabagarririk gertatzen bazaie, argazki desegokia, irain bat edo halako edozer gertatuz gero.



2. Berehalako mezu zerbitzuak: WhatsApp



WhatsApp

Orain *WhatsApp* aipatu behar dugu berariaz, telefono Internet-dun horietarako mezu-aplikazio multiplataforma nagusia. Aplikazio honek lortu du telefono mugikorren erabiltzaileak dohainik konektaturik egotea, mezuengatik ezer pagatu gabe elkarrizketak izateko bidea ematen baitu. Horrez gain, haren bidez mugarik gabe

Familiendako gida: Internet zentzuz erabiltzeko eskuliburua

argazkiak, bideoak eta audioak truka daitezke. Horregatik ezin konta ahala erabiltzaile ditu nerabeen artean.

WhatsApp honen ezaugarria da automatiko guk mobilean ditugun erabiltzaile guztiak beretzen dituela, aplikazio hori instalatuta badute. Hona gogoan izan beharreko zenbait gomendio:

- Ez inoiz erabili zerbitzu hau kreditu txartelen zenbakiak, pinak, banku kontuak eta halakoak bidaltzeko.
- Ez erabili WhatsApp material konprometitua bidaltzeko, *sexting* delakoa galarazteko.
- Aplikazio hau zentzuz erabili. Kontrolatu zein erabiltzailek duten sarrera gure WhatsAppera eta zentzuzkoa eta errespetuzkoa izan plataforma horretan edukia sortzen dugunean.
- Kontuz ibili mezuak bidaltzerakoan. Ez ibili presaka eta beti segur izan hartzailea guk nahi duguna dela. Konproba ezazu nahi duzun pertsonari bidaltzen diozula mezua; hartzaileak nahastea batzuetan oso larria izan daiteke zure bizitza profesional zein pertsonalerako.
- Taldeetan argi ibili ez oker-aditurik izateko. Zerbait broman esaten duzunean, emotikonoak erabili hori argi uzteko (☺). 
- Familiak balora dezala ea komeni den konexio ordua jarrita edukitzea. Konexio ordua kenduta edukitzea haurren pribazitatea babesteko bidea izan daiteke, galarazi beharreko kontrol bidea baita.
- Ez ireki *WhatsApp* bidez iristen zaizkizun link guztiak eta ez fidatu lotura laburtuez, batez ere nork bidaltzen dizkizun ez badakizu. Blokea eta bota itzazu.
- Kontuz ibili mezuak bidaltzeko erabiltzen dituzun *Wi-Fi* sareekin. Behar bezala babestuta ez badaude, edo *Wi-Fi* publikoak badira, gaizkile batek edo asmo txarreko pertsonaren batek, zure kontaktuekin egiten dituzun elkarrizketak harrapa litzake.
- Kontuz ibili *WhatsApp* bidez ibiltzen diren mezu kateatuekin. Ez sinistu kontaktu batek bidaltzen dizun edozein mezu, zure konfiantzako pertsona bada ere. Ezer egin baino lehen, egiazta ezazu informazio hori beste kontaktuekin, konfiantzako webguneekin, eta abar.
- Bidali dizuten artxibo bat ireki baino lehen, komeni da antivirus bat pasatzea, birusik ez duela egiaztatzeko.
- Ezaba ezazu zure solas historiala, inork zure dispositibo mugikorrera sartu eta ez ditzan irakurri eta horrela inork jakiterik nahi ez duzun zure gaineko informaziorik eskuratu.



Bideojokoen gaineko gomendioak

- Gurasook gainbegiratu behar dugu **zer bideojoko erosten edo deskargatzen** diren; garrantzi handiko lana da segurtasuna bermatzeko. Fabrikanteen gomendioak aintzat hartu behar ditugu, erabiltzen diren kodeen arabera.
- Kontsola edo ordenagailua etxeko **eremu komunetan** ezartzea komeni da, haurra ez dadin bakarrean egon eta horrela haren jarduera kontrolatu ahal izateko.




- Eginahala egin haurrarekin **taldean jokatzeko**, bakoitzaren partidak eta txandak antolatuz..
- Komeni da bideojokoekin **jokatzeko orduak kontrolatzea**. Joko horietan aritzeak ez lituzke galarazi behar haurraren beste jarduerak. Horregatik garrantzi handikoa da kontrolatzea haurrak zenbat denbora ematen dien bideojokoei. Hoberena da asteburuetan eta oporretan baizik ez erabiltzea. Astegunetan ere jokatuz gero, denbora mugatu behar da, eta beti ere, haurren

etxeko lanak eta izan ditzaketen beste egitekoak bukatu dituztenean

- Komeni da **bideojokoetarako denbora eta atsedeen denbora tartekatzea**.
- Haurrek kontzientzia hartu behar dute zenbat garrantzia duen **pribazitateak** bai bideojokoetan eta bai sarean oro har, norberarena izan ala inguruko pertsonena. Azal iezaiezu zer arrisku dauden.

- **Kontrolatu chat-etara eta on-lineko jokoetara sartzea** beste pertsona batzuekin. Erabiltzaile ezagunekin baizik ez dute jokatu behar, eta inoiz datu pertsonalik eman gabe.



- Kotsolen bidez jokoak eta zerbitzuak erosteko kontuak erabiltzaile zenbakiz eta **pasahitzez** babestuta eduki.


Legearekin arazorik ez izateko gomendioak

Gurasoak garen partez, jakinaren gainean egon behar dugu gure seme-alabek faltak eta delituak egin ditzaketela, askotan informazio faltan, zeren askotan konturatu gabe broma batetik delitu batera doan marra mehea pasatzen baitute. Ohar gaitezen ze jazarpena nozitzen duen haur baten gurasoak izatea txarra bada, ez dela askoz hobea jazarpena egiten duen haur batenak izatea.

Haurren artean maizenik izaten diren delitu eta faltak kalumniak, eta irainak, nortasuna lapurtzea, *ciberbullying* edo intimitatearen kontrako erasoak izaten dira.

Guk gurasook, jakin behar dugu:

- Adin txikikoa izateak ez duela erantzunbeharra osorik kentzen. Adin txikikoa bazara ere, egiten duzunaren erantzulea zara.
- Legeak ez ezagutzeak ez du kentzen lege horiek bete beharra. Hau da, legeak ezagutzen ez badituzu ere, berdin berdinean bete behar dituzu hala ere.



Gainera, hainbat mezu helarazi behar dizkiegu gure seme-alabei Internet egoki eta zentzuz erabil dezaten:

1. Internet ez da anonimoa

Interneten nabigatzen ari garela, lehen begiratuan uste izan dezakegu hori egintza anonimoa dela eta ez duela arrastorik uzten, eta ez da egia. Internetera konektatzen garenean *IP* bat esleitzen zaigu, hau da, zenbaki bat, nolabait gure ordenagailuaren izen-deitura dena sarera konektatzen denean. Delitu edo falta bat egiten bada eta hura inork salatzen badu, Poliziako brigada espezializatuek badituzte behar adina bide eta mekanismo arrasto horri segitu eta falta hori zer ordenagailutatik egin den antz emateko.

2. Adinaz egia esaten erakutsi

Haurrek oso maiz egiten duten gauza bat da adinarekin gezurretan ibiltzea, zeren Interneten zerbitzu askok debekatzen baitute 14 urtez beherakoak sartzea, hori baita legeak markatzen duen adina erabakitzeko ahalmena izateko. Adin horretaraino, gurasook izango gara haurren erantzuleak.



3. Ez utzi hurrei beste batzuen izena eta nortasuna hartzen

Nortasun lapurretako delitu bat galarazteko, lehenbiziko pausoa da hurrei irakastea zer neurri hartu behar dituzten inork haien izena eta nortasuna ez hartzeko. Alde batetik, esan bezala pasahitz sendoak eduki behar dituzte eta beren Internet saioak behar bezala itxi, eta batez ere ez inoiz adiskideei beren pasahitzak esan. Beste alde batetik ez dute inoiz beste lagun baten izena hartu behar, broman bada ere, edo egindako zerbaiten mendeku hartzeko. Internet saio bat irekita aurkitzen badute (*Twitter*, *Instagram*, posta ...), itxi egin behar dute.

4. Azaldu hurrei irain batek ere arazo latzak ekartzen ahal dizkiela.

Irainak eta kalumniak, nortasuna lapurtzea bezalaxe, delitu izatera iritsi daitezke. Horregatik garrantzi

handikoa da behin eta berriz esatea hurrei errespetuz jokatu behar dutela Internet eta sare sozialetan, besteen integritateari erasorik egin gabe, hau da, Internet ere “benetako bizitzan”, “aurkez aurk” daudenean bezalaxe jokatu behar dutela, zeren gauza bat kalean delitua bada, halaxe izango da Interneten ere.

ONDORIOAK

Ondoriotzat, bi gai funtsezko azpimarratu behar dira:

Konfiantza giroa eta balioak bultzatzeko giroa sortzea

Alde batetik, hobereana da etxean **konfiantza giro** bat sortzea, horrela gauza izango baikara gure seme-alaben bizitza digitalaren berri jakiteko eta edozer arazo suertatzen bazaie, haiek gauza izango baitira guri kontatu eta behar diren neurriak hartzeko.

Askotan hori konponduta gelditzen da gure seme-alabek ikusten dutenean gu ere teknologian adituak garela: badakigula zer diren *WhatsApp*, *Twitter* eta zer diren etiketak (*hashtags*), eta gauza garela hitz horiek gure eguneroko hizkeran txertatzeko, afari batean nahi bazkari batean. Hau da, lehenago “gaur norekin izan zara parkean?” galdetzen genien bezala, orain gauza garela “gaur norekin hitz egin duzu WhatsAppen?” edo “Argazkiren bat igo al duzu Instagramera?” galdetzeko.

Eta beste alde batetik, azpimarratu behar dugu zein garrantzitsua den gure haurrengan **balioak bultzatzea**, zeren gure seme-alabek bizitarako ikasitako balioak eta arauak dituztenean, zaila izango baita

gero gaizki erabiltzea ezinbesteko tresna den Internet hori.

Orain, bukatzeko, bultza egin nahi dizuegu, gurasoak zareten partez, segi dezazuen zuen hezkuntza lan zailean, eta azpimarratu nahi dugu teknologia berriak azken fin batean gure zerbitzuko tresna bat besterik ez direla, geu garenaren luzapena besterik ez direla eta guk ematen diegula arima eta gogoia makina horiei.

Bultza dezagun Interneteko alderdi positiboa, gure seme-alabak planeta urdinarekin lotzen dituen.



ERANSKINA

Gida honetako irudiak

- 2. orrialdeko irudiak_ Ekilikuak sortuak Dédalo fundazioarentzat eta Dédalo fundazioarenak
- 3. orrialdeko irudiak_ Ekilikuak sortuak Dédalo fundazioarentzat
- 5 eta 8 . orrialdeetako irudiak_ Ekilikuak sortuak Dédalo fundazioarentzat
- 9 . orrialdeko irudia_ Officeko irudi aurredeinatua
- 10 . orrialdeko irudiak _ Ekilikuak sortuak Dédalo fundazioarentzat
- 16 . orrialdeko irudiak _ Ekilikuak sortuak Dédalo fundazioarentzat eta Pantaila harrapatua
- 17. . orrialdeko irudia _ Pantaila harrapatua
- 18 . orrialdeko irudia _ Pantaila harrapatua
- 21 . orrialdeko irudia _ Officeko irudi aurredeinatua
- 22 . orrialdeko irudia _ Officeko irudi aurredeinatua
- 23 . orrialdeko irudia _ Dédalo fundazioaren irudia
- 24 . orrialdeko irudiak _ Officeko irudi aurredeinatua
- 25 . orrialdeko irudia _ Dédalo fundazioaren irudia
- 26 . orrialdeko irudiak _ Officeko irudi aurredeinatua
- 27 . orrialdeko irudiak _ Ekilikuak sortuak Dédalo fundazioarentzat

Iturriak eta bibliografia

- Haur eta nerabeek teknologiak modu seguruan erabiltzeko ohiturei buruzko eta gurasoen konfiantzari buruzko ikerlana, Intecok egina (gaur INCIBE).
https://www.incibe.es/CERT/guias_estudios/Estudios/Estudio_ninos
- Teknoadikzioen webgunea www.tecnoadicciones.com Protégeles elkartearena.
- Protégeles webgunea www.quenoteladen.com
- Cyberbullying eta Grooming kasuetarako gida legala, Intecok egina (gaur INCIBE).
http://www.educacion.navarra.es/portal/digitalAssets/49/49141_20110336.pdf

- Nerabeak eta Sexting gaiari buruzko gida, Intecok egina (gaur INCIBE).
https://www.incibe.es/CERT/guias_estudios/guias/Guia_sexting
- Internet bidezko iruzurraren gaineko ikerlana, INCIBEk egina.
https://www.incibe.es/CERT/guias_estudios/Estudios/Estudio_fraude_1C2012
- INCIBERen menpeko webgunea, (Komunikazio Teknologien Institutu Nazionala).
www.osi.es/recursos/utiles-gratuitos
- Ziber-jazarpenaren kontrako gida, Intecok egina (gaur INCIBE).
http://www.chaval.es/chavales/sites/default/files/editor/guia_lucha_ciberacoso_menores_osi.pdf
- Ciberbullying, Adin txikikoaren arartekoaren baliabide gida.
http://www.educacion.navarra.es/portal/digitalAssets/49/49132_20010331.pdf
- Ciberbullying: prebentzioa eta ekintza Madrilgo erkidegoak egina.
<http://www.copmadrid.org/webcopm/recursos/CiberbullyingB.pdf>
- Eusko Jaurlaritzaren Ciberbullyingerako protokoloa.
<http://www.emici.net/prot/Protocolo%20Ciberbullying.html>
- Adin Txikikoak eta mobil bidezko konektibitatea Espainian gaiari buruzko ikerlana, Protégeles elkarteak egina.
http://www.diainternetsegura.es/descargas/estudio_movil_smartphones_tablets_v2c.pdf
- Haurrendako nabigatzaileak.
www.kidoz.net
- Haurrendako bilatzaileak.
www.buscadorinfantil.com
www.kidrex.org
- Youtube Kids.
https://www.youtube.com/channel/UC7Pq3Ko42YpkCB_Q4E981jw
- Pribazitatearen gaineko webgunea, Save the Childrenek egina.
www.deaquinopasas.org
- Espainiako datuak babesteko Agentziak Internet erabiltzaileei egiten dizkien gomendioak.
http://www.agpd.es/portalwebAGPD/canaldocumentacion/publicaciones/common/pdfs/guia_recomendaciones_internet_052009.pdf
- Haurren eskubideei eta gurasoen betebeharrari buruzko gida, Espainiako datuak babesteko Agentziak adin txikikoentzat egina.
www.agpd.es/portalwebAGPD/canal_joven/common/pdfs/recomendaciones_menores_2008.pdf
- Nafarroako Gobernuaren webgunea Informatika segurtasuna eta adin txikikoen gainean
<http://www.disfrutalared.com/index.php/es/>

Dokumentu hau [Fundación Dédalo](#)-k egin eta [Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza departamentuak](#) finantzatu du